

**Gipuzkoako partaidetzako foro teknikoa
Erakunde arteko espazioa**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

**TEKNIKARIEN BILGUNEA
2017KO MEMORIA**



Donostian, 2018ko otsailaren 19an


AURKIBIDEA

AURKIBIDEA.....	2
SARRERA	3
TEKNIKARIEN BILGUNEA	4
Otsailak 10	4
Apirilak 28	5
Ekainak 16	6
Uztailak 19	8
Azaroak 10.....	8
Abenduak 12.....	8
Urtarrilak 31	9
LANTALDEAK	10
Proposamen arau-emaileak	10
Praktika onen sistematizazioa	10
Partaidetzazko aurrekontuak.....	11
FORMAZIOA	12
1.- Lege testuingurua eta gobernu ona, Begoña Garmendia eta Goizeder Manotas.	12
2.- Kalitatezko parte hartzea bultzatzeko zenbait gako: Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea.....	12
3.- Gatazken kudeaketa: Mainer Martiarena, Bakeola.	12
4.- Aprendiendo de la comunicación para la participación, Enrique Sacanell.....	13
ONLINE FOROA: PARTEKATU PLATAFORMA	14
ADIERAZLEAK: EMAITZAK.....	14
2018ra BEGIRAKOHOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	16

SARRERA

2017ko herritarren partaidetzarako erakunde arteko espazioaren memoria da hau. Urtean zehar espazioan garatu diren ekintza nagusiak laburbildu dira bertan. Lau zutabe nagusi izan ditu 2017 urteko plangintzak:

- **Teknikarien bilgunea:** foro nagusia. Bertan landu dira proposamen orokorrak, erabakiak hartu dira eta gainerako ekintzekin lotura lana egiteko balio izan du.
- **Trebakuntza:** herrietako teknikarien beharretara egokitutako formazio eskaintza egin da. Urrian zehar, lau astez jarraian.
- **Lantaldeak:** gai zehatzen inguruan egikaritutako proiektu partekatuak landu dira. Gaiak teknikarien bilgunean erabaki dira eta udaletako teknikariek modu boluntarioan hartu dute parte euren interesekolantaldean.
- **Partekatu on-line foroa:** aurrez-aurreko harremana zeharka indartzeko asmoarekin sortu da, eta batez ere, espazioak sortzen dituen material guztien gordailu izateko kide guztiek eskuragarri izan dezaten sortzen den material guztia (aktak, txostenak, lantaldeen ibilbideak eta emaitzak, formazio saioetako edukiak...).




Jarraian, horietako bakoitzak eman duena azalduko dugu.

TEKNIKARIEN BILGUNEA

Espazioaren gune nagusia eta jendetsua da. Bertan egiten zaio plangintzari jarraipena eta edukiak eztabaidatzeko eta erabakitzekeo gunea da.

Hasierako asmoa urtean hiru bilera egitea baldin bazen ere, legealdi hasierako etena dela eta, plangintzaren abiatze fasean, batez ere, beharrezkoa izan zen bilera gehiago egitea proposamena adosteko eta udalerrri guztien nahiak eta beharrak aseko lituzkeen programazioa lantzeko. Hori dela eta, ondoko eskeman ikusten den bezala, orotara zazpi saio egin dira urtean zehar, baina horietako bi monografikoak izan zirenez (uztailekoa, azaroko Kongresua prestatzeko, eta abenduakoa, 2018ko diru-laguntza deialdiaren berrikuntzei buruzkoa), orotara, esan dezakegu teknikarien bilguneko bost saio egin direla 2017ko ekitaldian.



Bileren guztien errepaso egingo dugu jarraian, bertan jorrotutakoen laburpen batekin:

Otsailak 10

Asistentzia datuak:

Emakumezkoak	14	Gizonezkoak	8
Udalak	17	GFAtik	5
Teknikariak	15	Ordezkarri politikoak	7
Guztira	22 lagun		

Bileraren gai zerrenda:

- Ongi etorria eta kokapena
- Dekretuari egindako ekarpenen eta emandako urratsen azalpena
- Bilera testuinguruan kokatzea eta planteamendua azaltzea

- Proposamena adostea lan talde txikietan eztabaidatu ondoren
- Adostutako proposamena 2017rako planteamendu bakarrean jasotzea
- Espazio exekutiboan planifikatutako nork, nola, noiz aurkeztuko duen erabakitzea.

Urteko planifikazioa adosteko bilera izan zen. Aurreko esperientzia bazegoen, hainbat urtetakoa, baina azken bi edizioetan nolabaiteko etena egon zen eta planteamendu berria adostea izan zen saioaren xedea. Izaera berria eman nahi izan zitzaion espazioari, baina ez zen definizio bateratua egiteko akordiorik adostu zenbait gairen inguruko desadostasunak azalera zirelako; batez ere, lantaldeak herrien biztanle kopuruaren ala gaiaren arabera antolatzeari buruz.

Era berean, zenbait proposamen egin ziren planteamendua borobiltzeko.



Apirilak 28

Asistentzia datuak:

Emakumezkoak	22	Gizonezkoak	16		
Udalak	31	GFAtik	4	Dinamizatzaileak	3 (Emun)
Teknikariak	23	Ordezkarri politikoak	12		
Guztira	38 lagun				

Gai zerrenda:

- Ongi etorria, gaiaren aurkezpena, bulegoteknikoko eta aholkularitzako kideen aurkezpena, bileraren helburuak.
- Foroaren ibilbidearen hustuketa
- Proposamenaren aurkezpena.
- Proposamenaren indarguneak eta hobetzekoak aztertu
- Lantaldeetako gaien aukeraketa
- Saioaren balorazioa

Aurreko saioetan aipatutakoak kontuan hartuta, proposamen zehatz bat aurkeztu zen saio honetan. Proposamen hori eztabaidatzea eta balidatzea izan zen bilgune honen asmo nagusia. Aurretik, testuingurua kokatzeko, ibilbide historikoaren errepaso egin zen, aurretik egon ziren desadostasunak edo trabak azalduz, eta ondoren, horiei konponbidea emateko irtenbide proposamenak egin ziren, plangintzan jaso zirenak. Emun aholkularitzarekin egin zen lehen saioa izan zen. Saioan bertan hobekuntza proposamenak egiteko tarte zabalduta izan zen eta horietako batzuk plangintzan txertatu ziren.

Azkenik, lantaldeetan jorratuko ziren gaiak erabaki ziren:

- Proposamen arau-emaileak.
- Partaidetzazko aurrekontuak.
- Praktika onen sistematizazioa.

Ekainak 16

Asistentzia datuak:

Emakumezkoak	19	Gizonezkoak	12		
Udalak	22	GFAtik	3	Dinamizatzaileak	2 (Emun)
Teknikariak	19	Ordezkarri politikoak	10		
Guztira	31 lagun				

Gai zerrenda:

- Ongi etorria eta bileraren kokapena
- Teknikarien foroaren egutegiaren aurkezpena ekitaldiaren amaiera arte
- Teknikarien foroaren baloreen lanketa
- Teknikarien foroaren adierazleak lantzeko dinamika
- Urtean zehar egin diren (edo egingo diren) prozesuak zerrendatu
- Lantaldeen aukeraketa
- Saioaren balorazioa

Kasu honetan, aurreko bilgunean adostu zen proposamena egutegi zehatzera ekarrita aurkeztu zen. Izan ere, urte osorako pentsatua zegoen planteamendua 7 hilabetera ekarri behar izanenez, zenbait kasutan erritmoak estutu behar izan ziren. Arrozoi horrexegatik, saioan bertan adostu zen plangintza 2018ko urtarrilera arte luzatzea.

Era berean, “berdintasuna eta partaidetzari” buruzko lantaldeari jarraipena emateko eskaera egin zen. Elkarrizketa egon zen gai horren bideragarritasunari buruz, baina GFAko sailen arteko koordinazio zailtasunak direla eta, erabaki zen lantalde formatuan ez zela landuko baina aurretik egindako lanaren aurkezpena egiteko izapideak egingo zirela agindu zen.

Udalek gustukoaren zuten lantaldean parte hartzeko izen ematea zabaldu zen eta behin-behineko lehen taldekatzeak egin ziren.

Saioarekin amaitzeko, aurreko bilguneko eskaerak aintzat hartuz, erakunde arteko espazioaren, eta, bereziki, teknikarien bilguneko **balioak** izango direnak adostu ziren eta ebaluaziorako eta jarraipenerako **adierazleak** adosteko lehen lanketa egin zen.



Hauk izan ziren adierazleentzako proposatu ziren puntuak:

Bilgunea, orokorrean:

- Parte hartu duten udal kopurua (neurriaren arabera / eskualdearen arabera)
- Parte hartu duten udalek abiatu dituzten prozesu kopurua (konparazioa 2017-2018)
- Plangintzaren betetze maila

Bilguneko bilerak:

- Gai zerrendaren betetze maila (gai zerrenda osorik landu dugu, ala ez?)
- Saioen balorazioak
- Bileretan/saioetan zenbat denbora eskaini diogun elkarrizketari / zenbat azalpeni
- Saioetako asistentzia (sexu-generoaren arabera)

Ikastaroak / Formazioa:

- Egindako saio kopurua
- Saioen balorazioak
- Saioen erabilgarritasuna (epeluzera)
- Saio motak: magistralak / balioekin bat?

On line plataforma:


- Plataformara egindako sarbide kopurua
- Plataforman egindako ekarpen kopurua

Lan taldeak:

- Lan talde bakoitzak egin dituen saio kopurua
- Sortutako materiala: sortu da?
- Udalerrien neurria hartu al da kontuan materiala diseinatzerakoan?
- Hurrengo urteei begira: erabili al da materiala?

Sozializazioa / komunikazioa:

- Udaletan
- Herritarrekin
- Beste udalekin (zein ekintza egin diren / nola egin diren)
- Sortzen den informazioa norberaren udalean transmititzeko erraza izatea
- Informazioaren kalitate maila



Uztailak 19

Asistentzia datuak:

Emakumezkoak	9	Gizonezkoak	8		
Udalak	10	GFAtik	5	Dinamizatzailleak	2 (Emun+Sinnergiak)
Teknikariak	12	Ordezkarri politikoak	3		
Guztira	17 lagun				

Gai zerrenda:

- Herritarren Parte-hartzearen Kongresuari buruzko informazio zehatza eman
- Udalerrien blokearen inguruko puntuak finkatu

Azaroan antolatzekoa zen herritarren parte-hartzeari buruzko kongresuari buruzko saio monografikoa egin zen. Zehazki, udalen atala zehazteko; kongresuan azaltzeko interesgarriak izan daitezkeen kasu adierazgarriak zerrendatu zituzten.

Azaroak 10

Asistentzia datuak:

Emakumezkoak	5	Gizonezkoak	8		
Udalak	6	GFAtik	5	Dinamizatzailleak	2 (Emun)
Teknikariak	9	Ordezkarri politikoak	2		
Guztira	13 lagun				

Gai zerrenda:

- Ongi etorria eta bileraren kokapena
- *Partekatu* on line foroaren aurkezpena
- Adierazleen lanketaren jarraipena
- Lantaldeen ibileraren berri eman
- Saioaren balorazioa

Jarraipenerako foroa izan zen. Lantaldeek ordura arte egindako lanaren aurkezpena egin zen eta ekainean hasi zen adierazleen lanketari amaiera eman zitzaion, ordura arte espazioaren jardunak sortutako datu errealekin kontrastatuz eta esanguratsuak ote ziren baloratu.

Abenduak 12

Asistentzia datuak:

Emakumezkoak	11	Gizonezkoak	10		
Udalak	10	GFAtik	6	Dinamizatzailleak	2 (Emun)
Teknikariak	15	Ordezkarri politikoak	4		
Guztira	21 lagun				

Gai zerrenda:

- Ongi etorria eta bileraren kokapena
- Diru laguntzen bilakaera, ezaugarriak eta 2018ko deialdiko aldaketa nagusiak
- Hurrengo pausoak
- Saioaren balorazioa

Diru-laguntza deialdi berriari buruzko informazioa zabaltzeko lan saio monografikoa. 2018ari begirako berrikuntza nagusiak azaldu ziren eta bertaratuen zalantzak argitu ziren galdera-erantzun bidez.

Urtarrilak 31

Asistentzia datuak:

Emakumezkoak	16	Gizonezkoak	11		
Udalak	14	GFAtik	6	Dinamizatzaileak	2 (Emun)
Teknikariak	22	Ordezkarri politikoak	3		
Guztira	27 lagun				

Gai zerrenda:

- Ongi etorri, bileraren kokapena eta aurkezpena
- Berdintasuna eta parte-hartzea
- Foroaren 2017ko ibiliaren laburpena
- Lantaldeen emaitzen aurkezpena
- 2017ko foroa datuetan: adierazleetan oinarritutako datuak
- GFAREN irakurketa
- 2017ko ekitaldiaren balorazioa eta 2018rako hobekuntza proposamenak
- 2018rako plangintzaren zirriborroaren proposamena
- 2018 lantaldeetako eta prestakuntzarako gaien aukeraketa
- Saioaren balorazioa

2017ko ekitaldiko azken saioa. Lehen zatian Berdintasuna eta parte hartzeari buruzko aurkezpena egin zuen Oreka Sarea-ko Marixe Noyak eta bigarren zatian ekitaldiaren balorazioa egin eta 2018ko plangintza landu zen. Era berean, lantaldeen azken emaitzak aurkeztu ziren eta 2018rako lantaldeen eta prestakuntzarako gaiak proposatu ziren.



Ondoren, aurtien lanean jardun duten hiru lantaldeetako ordezkariak egindako lanaren aurkezpena egin dute, taldeetako bakoitzaren azken emaitzak bertaratutako guztiek ezagutu ditzaten:

LANTALDEAK

Proposamen arau-emaileak

Parte-hartzaileak:

Udalerria/Erakundea	Izen abizenak
Donostiako udala	Beñat Jauregi
Donostiako udala	Iñaki Otamendi
Zaldibiako udala	Estitxu Mujika
Tolosako udala	Garikoitz Lekuona
Errenteriako udala	Mikel Goñi
Aretxabaletako udala	Amaia Murgiondo
Arrasateko udala	Jon Eguren
Irungo udala	Isabel Calvo
Orioko udala	Jabier Zabaleta
Gipuzkoako Foru Aldundia	Garbiñe Aramendi (bideratzailea)
Emun	Denis Elortza (bideratzailea)

- **Lantaldearen helburua:** udalaz gaindiko legediak herritarren parte-hartzeari dakartzkion betebeharrak zerrendatzea eta udal guztietarako instrukzio garbiak esplizitatzea.
- **Lantaldearen emaitzak:** Araudi-markoaren [bilduma laburtua](#); Udalentzako [instrukzio-zerrenda](#); eta EUDEL lantzen ari den ROM ereduaren aurrerapena.

Praktika onensistemazioa

Parte-hartzaileak:

Udalerria/Erakundea	Izen abizenak
Donostiako udala	Amaia Agirreolea
Zarauzko udala	Nerea Ollokiegi
Beasaingo udala	Julen Urteaga
Lasarte-Oriako udala	Xabier Arozena
Hernaniko udala	Mertxe Gomez
Gipuzkoako Foru Aldundia	Sergio Gonzalez (bideratzailea)
Emun	Denis Elortza (bideratzailea)

- **Lantaldearen helburua:** Praktika onak izan ditzagun lagunduko digun sistematika-gida bat sortzea.
- **Lantaldearen emaitzak:** Parte-hartze egitasmoa definitu eta garatzeko [fluxu-diagrama](#); Gida eta eskuliburuen [bilduma](#); eta Komunikazio planerako [jarraibideak](#).

Partaidetzazko aurrekontuak

Parte-hartzaileak:

Udalerrria/Erakundea	Izen abizenak
Donostiako udala	Beñat Jauregi
Donostiako udala	Olatz Estensoro
Elgoibarko udala	Ainhoa Etxezarreta
Bergarako udala	Nagore Narbaiza
Segurako udala	Eñaut Telleria
Gipuzkoako Foru Aldundia	Joxe Piñas (bideratzailea)
Emun	Mikeldi Zeberio (bideratzailea)

- **Lantaldearen helburua:** Gipuzkoan egiten diren esperientzien bankua sortu, eta eredu eta metodologia desberdinak bistaratu.
- **Lantaldearen emaitzak:** Partaidetzazko aurrekontuen inguruko [teoria-bilduma](#); Gipuzkoako [esperientzien bankua](#); Partaidetzazko aurrekontuen egitasmo bat diseinatzeko [fitxa](#) lagungarria.

FORMAZIOA

2017ko urrian egin zen, lau astez jarraian, partaidetzako teknikarientzako ikastaroa. Saio bakoitzaren nozio nagusiak azalduko ditugu jarraian:

1.- Lege testuingurua eta gobernu ona, Begoña Garmendia eta Goizeder Manotas.

Eguna: 2017ko urriak 4.

Gaiak:

Saioaren lehen zatian, Begoña Garmendiak, Azkoitiko udaleko idazkariak hitzaldia eman zuen ondorengo izenburuarekin: [“Tokiko gobernu eta administrazioetako jardunbideetan herritarren partaidetza eta erakundeen gardentasuna arautzeko 2013tik hona onartu diren lege berriak -laburpena-“](#). Bertan, izenburuak dioen bezala, azken urteetan lege arloan herritarren partaidetzaren eremuan egon diren aldaketak azaldu zituen.

Bigarren zatian, Goizeder Manotasek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Modernizazioaren, zerbitzuen eta informazio gizarterako sistemen zuzendari nagusiak, hitzaldia eman zuen [GFAk Gobernu ona nola ulertzen duen adierazteko](#), eta, bidez batez, alor horretan ezarri dituen neurrien berri eman zuen.

2.- Kalitatezko parte hartzea bultzatzeko zenbait gako: Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea.

Eguna: 2017ko urriak 11.

Gaiak:

[Prometea](#) aholkularitzako Iciar Montejo eta Zorione Aierbek gidatutako saioan Kalitatezko parte-hartze prozesuak gidatzeko gakoak landu ziren talde dinamiketan oinarrituta. Partekatu plataforman kontsulta daiteke saiorako [erabilitako oinarritzko materiala](#).

3.- Gatazken kudeaketa: Maider Martiarena, Bakeola.

Eguna: 2018ko urriak 18.

Gaiak:

Partaidetza prozesuetan gerta daitezkeen gatazkek lantzeko eta gainditzeko estrategiak ezagutu ziren saioan, Bakeola elkartereko Maider Martiarenaren eskutik. Gatazkek modu egokian lantzeak dauzkan onurak modu positiboan azalerratea izan zen saioaren xede nagusia. Ikastaroan erabilitako [aurkezpena](#) eta saioan zehar landu ziren adibideak biltzen dituen [dokumentua](#) gorde dira Partekatu plataforman.



4.- Aprendiendo de la comunicación para la participación, Enrique Sacanell.

Eguna: 2017ko urriak 25.

● Gaiak:

Herritarren partaidetza prozesuetan komunikazio eraginkorrak eta egokiak duen garrantzia azpimarratu zuen Enrique Sacanellek bere saioan. Aldaketaren kultura eta aldaketekiko erresistentziak, entzute aktiboa eta komunikazio ulerkorra izan ziren jorratu ziren gai nagusiak.

ONLINE FOROA: PARTEKATU PLATAFORMA

Irailean jarri zen martxan “Partekatu” izeneko plataforma Gipuzkoako Foru Aldundiak erabiltzen duen “Elkarlana” atariaren barnean. Helburu nagusia da elkarrekintzarako on line tresna erabilgarria sortzea, espazioan parte hartzen duten pertsona guztientzat erabilgarria izango dena eta espazioaren jardunak sortzen dituen material guztiak biltegitratuko dituenena. Era berean, herritarren partaidetzarekin zerikusia duten albiste esanguratsuenak jasotzen dira “blogak” atalean eta hilabetero albiste interesgarrienen txostena egiten da jakintza partekatu eta eguneratzeko asmoarekin.

Ondoko atalak dauzka Partekatu guneak:


- **Egutegia:** hitzordu garrantzitsuenak jasotzen dira bertan.
- **Dokumentuak:** aktak, lantaldeen materialak, prestakuntzako materiala, biltegitratzeko gunea.
- **Albisteak / buletinak:** albiste esanguratsuen gunea.
- **Wikiak :** dokumentuak elkarlanean garatzen ahalbidetzen duen gunea.
- **Foroa:** elkarrizketak eta eztabaidak egiteko gunea.

ADIERAZLEAK: EMAITZAK


Teknikarien bilguneko ekaineko eta azaroko saioetan landutako adierazle sisteman oinarrituta eta adostutako balioak kontuan hartuta, 2017 urteko jardueraren datuen emaitzak dira hauek:

ADIERAZLEAK	NEURGAILUAK	NEURGAILUEN EGOERA	ADIERAZLEEN EGOERA
Udalen parte-hartzea	Bilguneeko asistentzia Ikastaroetako asistentzia On-line plataforman erregistratutako udalen portzentajea Lan-taldeetan izena emandako udalen portzentajea Lan-taldeetako asistentzia	%21 %21 %38 %31 %41	**
Plangintzaren betetze-maila	Aurreikusitako ekintzen (Bilgunearen bilerak, kongresua, lantaldeen bilerak eta "produktuak", on-line plataforma, prestakuntza ikastaroak...) betetze-maila	%100	*****
Plangintzako ekintzen kalitatea	Bilguneeko bileren balorazio orokorrak Prestakuntza ekintzen balorazio orokorra Lantaldearen bileren balorazio orokorrak	%73 %68 %84	****
Plangintzaren eraginkortasun-maila	Bilguneetako balorazio orriko 1. galdera (eraginkortasun-pertzepzioa) Lantaldeetako balorazio orriko 1. galdera (eraginkortasun-pertzepzioa) Prestakuntza ekintzen balorazioa? (eraginkortasun-pertzepzioa)	%63 %83 %76	****
Foroaren balioen betetze-maila	Bilguneetako balorazio orriko 2., 3. eta 4. galderak [ph aukera, giroa, motiba Lantaldeetako balorazio orriko 2., 3. eta 4. galderak [ph aukera, giroa, motib Udalen asistentzia orokorra (bilgunea, lantaldeak, prestakuntza, kongresua, c	%76 %87 %30	***


ESPAZIORA ATXIKITUTAKO UDALEN ARTEAN ZENBATEK ETA NOLA PARTE HARTU DUTE?



ANTOLATUTAKO EKINTZEN KALITATEA ETA ERAGINKORTASUNA



ESPAZIOAREN BALIOEN BETETZE-MAILA



Datu horietan oinarrituta, ondoko irakurketa egin zuen Joseba Muxikak urtarrilaren 31ko bilgunean: orokorrean, ondo baloratzen du espazioa bera abiatu izana, eta baita bertan egindako lana ere; hala nola, lantaldeek egindako lana eta sortutako emaitzak. Halaber, aipatu zuen prestakuntza saioak oso baliagarriak izan direla eta online foroa abiatu izana ontzat eman daitekeela ere. Hobetzekoen artean, espazioa gainerako udalentsat erakargarriago egiteko formulak lantzea aipatu zuen eta on-line foroa edukiz gehiago hornitzea eta estetikoki hobetzea. Laburbilduz, 2018ari begira, espazioaren dinamika errotzarekin batera, bertara udalerrri gehiago erakartzea izan daitezkeela erronka nagusiak.

2018ra BEGIRAKO HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Amaitzeko, foro horretan bertan gainerako teknikariek egin zuten balorazioaren hustuketa ekarri dugu memoria honetara. 2017ko ekitaldiaren balorazioa izateaz gain hurrengo ekitaldirako hobekuntza proposamenak jasotzen direlako bertan.

Bost taldetan banatu ziren parte-hartzaileak eta bost atal aztertzeko eskatu zitzaizkien guztiei: teknikarien foroa, lantaldeak, prestakuntza, on-line foroa eta I. Herritarren Partaidetza Kongresua. Item bakoitzean talde bakoitzean jasotakoa bildu dugu talde bakoitza 1etik 5era izendatuz.

GAIK	2018rako HOBEKUNTZAK
Teknikarien foroa: Bilera kopurua, bileren edukiak, bileretako giroa, bileretako parte-hartzea, ...	1. Elkar ezagutzeko / harremantzeko denborak babestu. Aniztasuna bilatu kideen artean: udalerrri eta perfil desberdinetako partaideak, neurri desberdinetakoak. Bilatu aukerak foro mistoak antolatzeko: politikariak+teknikariak. Planifikazioaren beharrak gehiago kezkatzen gaitu kopurua baino.
	2. Herri txikiak falta dira bereziki. Haietzako ordutegiak ez dira onak. Eduki aldetik ere egokitu. Gaur aurkeztu dena, haiei ere aurkeztea.
	3. Pilaketarik ez. Bilera bat arratsaldean egitea, gutxienez, probatzeko.
	4. Askokostatu zen hasiera eta horrek udal asko bidean gelditzea ekarri du. Beraz, arranke azkarra. Diru-laguntzak: kopuru gutxi eskatzen duen ahaleginarentzat.
	5. Herri txikiak beste distantzia batetik bizitzen dute, baina ez dira maila berean parte sentitzen.
Lan taldeak: Gaiak, emaitzak, baliagarritasuna, erritmoa, lan taldeetako giroa, lan taldeetako parte-hartzea, udalen ekarpena...	1. Ondo orokorrean. Soberan denborarik ez dugu izan baina zaila egiten zaigu agendetan denbora gehiago libratzea. Are gehiago partaidetza teknikariak ez direnentzat. Proposatzen dugu gai edo atal ezberdinetako lantaldeak sortzea (mistoak: hirigintza, idazkariak eta partaidetzakoak...).
	2. Sortzen diren tresnak bildu eta ezagutzera eman. Sormena: emaitza berriak izateko bide berriak esploratu, daudenetan sakondu baino.
	3. 2017ko dinamika mantentzea.
	4. Kopuru nahikoa bermatu. (Taldea honetako inork ez du parte hartu lantaldeetan). Emaitzak onak izan dira.
	5. Gaia argia ez denean zailtasuna adosteko eta asistentzian akaso arazoak ere. Gaia zehatza izatea eta errealitateak kontuan hartu, desberdinak, motibazioa sustatzeko.
Prestakuntza: Gaiak, saioen emaitzak, formatua, maiztasuna, kopurua, baliagarritasuna, saioetako giroa, ...	1. Trebakuntzak prestatzerakoan maila ezberdinak kontuan hartzea eta eskaintzan aipatzea. Adibidez: hastapen maila, maila ertaina, maila aurreratua.
	2. Maila eta ezagutza desberdineko partaideak daude. Batzuentzat oinarrikoegia. Ikastaroaren izenburua eta landutako gaien arteko lotura handiagoa behar da.
	3. Baten bat arratsaldean (udal txikiak).
	4. Denbora kontuengatik udal batzuk (txikiak bereziki) ezin dute parte hartu, Goiz guztia libratzea gehitxo.
	5. Egokia, baina formakuntza <u>praktikoagoa</u> , exijenteagoa... izerdi gehiago.
On line foroa: Erabilgarritasuna, edukiak, funtzioak, erabilerraztasuna, udalen ekarpena...	1. Ondo ikusten dugu baina ezin heldu.
	2. Tresna potentea da, erabilgarria da, baina erabiltzeko behar handia ez da sentitu.
	3. ----
	4. Ez da erabili. Egunerokotasunak jaten gaitu. Abisuak emailara edukiak sartzen direnetan.
	5. Harpidetza erraztu, baina ezinbesteko bezala eta mezuak jasoz.
Kongresua: Formatua, edukiak, hizlariak, udalen esperientziak, baliagarritasuna ...	1. Ez zen izan oso parte hartzailea, sortzailea.
	2. ----
	3. Eduki anitzagoak. Luze.
	4. Elkarrizketetarako tarte handiagoa, gertuagokoa izatea. Oso formatu hotza.
	5. Ez zen beharrezkoa bi egun programa ikusita eta ez zen ekarpen berririk apenas jaso. "Kongresu" gehiegi akaso. Teknikarion errealitatean gutxi egokitua eta bi egun gehiegi.